



2004ko apirila

SEI KULTUR ELKARTEA

**PASAIAKO
EUSKARAREN KALE
ERABILERAREN NEURKETA**

*2003ko azaroan egindako
neurketak*

PASAIKO EUSKARAREN KALE ERABILERAREN NEURKETA

1	Sarrera	2
1.1	Kale Erabileraren beharra	2
1.2	Euskal Herriko Neurketa	2
1.3	Erabilera datuen garrantzia herri mailako hizkuntza planifikazioan	3
2	NEURKETA nola egin dugun	4
2.1	Neurketa egunak eta orduak	4
2.2	Aztertutako zonaldeak eta neurketarako ibilbideak	4
2.3	Neurketarako metodologia	5
3	Neurketaren EMAITZAK	8
3.1	Emaiza orokorrak	8
3.2	Erabileraren bilakaera	8
3.3	Zonaldekako emaitzak	10
3.4	Erabileraren bilakaera zonaldeka	11
3.5	Adin taldekako emaitzak	16
3.6	Adin taldekako erabileraren bilakaera	17
3.7	Neurketa egunen arabera emaitzak	21
3.8	Sexuaren arabera emaitza	22
3.9	Haurren presentziaren eragina	23
3.10	Haurren eraginaren bilakaera erabileran	25
4	Hizkuntza GAITASUNA eta BILAKAERA herrian	26
4.1	Pasaiako ezagutza (2001)	26
4.2	Ezagutzaren bilakaera	28
4.3	Adin taldekako ezagutzaren bilakaera	29
5	Emaitzen AZTERKETA ETA ESANAHIA	32
5.1	Espero daitekeen erabilera: kontzeptuaren azalpena	
5.2	Erabilera erreala eta espero daitekeen erabilera	33
5.3	Eskualdeko, probintziako eta Euskal Herriko datuekiko alderaketa	35
6	Datozen 10 urteetarako PROSPEKZIOA (2003-2013) (BEGIRA)	37
7	ERANSKINAK	39
7.1	<i>Txillardegiren</i> eredu matematikoa eta erabilera isotropikoa	39
7.2	Neurketa arauak eta oharrak	44
7.3	Fitxak	46
7.4	Emaiza orokorrak	46

1 SARRERA

SEI Elkarateak Pasaian egiten duen bigarren neurketa da 2003ko hau; aurretik, 2001ean ere SEIk egin zuen neurketa udalerrian. Txosten honek 2001ekoaren egitura berdina jarraitzen badu ere, atal berriren bat nabarmendu behar da bertan: alde batetik, datu berriak eskaintzen dira, 2003ko erabilera datuak eta 2001eko ezagutza datuak, eta baita datu horien araberrako bilakaerak ere. Bestalde, 2003an egindako neurketa hau Pasaian egiten den hamabigarrena denez, lau urtez behingo batez bestekoak ere atera ditugu beste atal batean.

1.1 Kale Erabileraren beharra

Euskararen egoera ona den edo txarra den, hobera doan edo okerrera doan galdetzen digutenean, askotan ez dugu jakiten nola erantzun, eta sarri erantzuna bera oso modu subjektiboan ematen dugu. Zentzu honetan, gero eta garrantzitsuagoa zaigu euskararen egoera eta bilakaera modu objektiboan baloratzeko aukera ematen diguten datuak izatea, eta datu horien artean bada bat herriko **euskararen errealitatea adierazteko funtsezkoa dena: kalean erabiltzen den euskararen neurketa**, hain zuzen ere.

Badira beste hainbat datu (erroldako ezagutza datuak, ikastetxe eta euskaltegiak matrikulazio datuak...) herriko hizkuntza egoera ezagutzeko baliagarri direnak. Hala ere, herrian euskararen normalizaziorako ahaleginen ondorioak eta denborarekin ematen diren aldaketak eguneroko erabileran islatzen dira; gure herriko esparru ezberdinetan, besteak beste, herriko kaleetan. **Kale erabileraren neurketak, hortaz, errealitate horren berri ematen digu modu zuzen eta objektibo batean.**

Kontuan izan behar dugu, hizkuntza egoerari buruz ematen diren datu gehienak, oro har, hiztunek inkestetan aitorturiko datuak direla (erroldakoak, inkesta bidezko ikerketak, etab.). Hau horrela da, besteak beste, erabilera modu errealean neurtzea ez delako erraza izaten. **SEI Elkarateak egindako neurketak kalean behaketa zuzenaren bidez lorturiko datuak eskaintzen dizkizue.** Horretarako, gainera, **oinarri metodologiko sendoa dugu.** Gaur egun SEI Elkaratea arduratzen da Euskal Herri mailan Kale Erabileraren Neurketa egiteaz eta horrez gain zenbait udalerritan ere egin ditugu honen antzeko neurketak (esate baterako, 2001ean 25 bat herritan burutu genituen neurketak).

1.2 Euskal Herriko Neurketa

Pasaian egin dugun Kale Erabileraren Neurketaren **oinarri metodologikoa Euskal Herri mailan egiten den neurketan garaturikoa da**, baina kasu honetan herriko berezitasunetara egokituta.

Euskal Herriko Kale Erabileraren Neurketa Orokorra 1989. urtean egin zen lehen aldiz eta geroztik lau urtez behin errepikatu da: 1993an, 1997an, eta 2001ean. Neurketa horretan Euskal Herriko 5.000 biztanletik gorako herri guztietan eta hemendik beherako batzuetan egiten dira neurketak. Orotara 250.000 hiztunetik gora behatzen dira kalean hizketan. 1998an EKB desagertu ondoren,

SEIk hartu zuen bere gain Neurketa Orokorra egitearen ardura eta 2001eko azaroan bertan egin genuen IV. Neurketa. Modu horretan, beraz, **SEIk orain arteko neurketen oinarri metodologikoa eta esperientzia jaso du, eta oinarri kontrastatu hau erabiliz egin dugu Pasaiaiko neurketa ere.**

1.3 Erabilera datuen garrantzia herri mailako hizkuntza planifikazioan

Kale Erabileraren datua funtsezkoa da herri mailan hizkuntza errealitatea ezagutu edota planifikatu nahi duen edonorentzat. Euskararen aldeko sustapen lan bat aurrera eramán ahal izateko baliabideak mugatuak izan ohi direnez, beharrezkoa zaigu premiarik larrienak zein diren ezagutzea, lehentasunak finkatzea eta ondoren horiengan eragiteko ekimenak martxan jartzea.

Neurketak, besteak beste, adin talde bakoitzak kalean euskara zenbat erabiltzen duen esaten digu, eta horrek **asko errazten digu ondoren lehentasunak non dauden identifikatzeko.** Gainera, Kale Erabileraren neurketak maiztasun batekin eginez gero (urtero, bi urtez behin...), urtetik urtera ematen den bilakaera ezagutu ahal izango dugu, eta modu horretan herrian ematen diren hizkuntza aldaketak gertutik jarraitu ahal izango ditugu.

Alde horretatik, **2003ko neurketa hau** Pasaian egiten den lehenengoa ez denez, **udalerrian 1991z geroztik urtero egin diren neurketekin alderatu eta dagokion interpretazioa egin ahal izango dugu¹.** Horretarako, 2003ko Kale Erabileraren Neurketa honetan, udalerrian erabilitako diseinu bera erabiltzen saiatu gara. Izan ere, urte ezberdinetako neurketen jarraipen bat egiteak eta datuak konparatzeak du interesa, erabilerari dagokion bilakaera ezagutze aldera.

¹ Horrez gain, EKB ere arduratu izan da Pasaian Kale Erabileraren Neurketa egiteaz. Kontua, baina, zera da: 89, 93 eta 97an eurek eginiko neurraldietan erdigunea hartu zutela, soilik, kontutan. Horrexegatik, erdiguneko bilakaera aztertzeke interesgarri gerta dakigukeen arren, alderagarritasunaren aldetik udalerrian eginikoak osatuagoak zaizkigu.

2 NEURKETA NOLA EGIN DUGUN

2.1 Neurketa egunak eta orduak

Pasaian Euskararen Erabileraren Kale Neurketa 2003ko azaroan burutu da: hilaren 5ean (asteazkena), 15ean (larunbata), eta 17an (igandea), hain zuzen ere.

Guztira ondorengo koadroan dituzuen bost neurraldiak egin dira:

➤ Azaroaren 5a, asteazkena,	11:00-13:00
➤ Azaroaren 5a, asteazkena,	18:00-20:00
➤ Azaroaren 15a, larunbata,	12:00-14:00
➤ Azaroaren 15a, larunbata,	18:00-20:00
➤ Azaroaren 16a, igandea,	12:00-14:00

2.2 Aztertutako zonaldeak eta neurketarako ibilbideak

Sei zonalde neurtu dira eta bakoitzean ibilbide bat zehaztu da; kalerik jendetsuenak biltzen dituen ibilbidea, hain zuzen.

Hori horrela, Kale Neurketa ondorengo sei zonaldeetan eta dagozkion ibilbideetan egin dugu, aipaturiko bost neurraldietan:

- ↪ **Donibane Zaharra:** Bonantza pasealekua, Santiago plaza, eta Donibane kalea, muga aparkalekua delarik.
- ↪ **Donibane Meipi:** Lezo bidea kalea, Bordalaborda kalea (frontoiaren inguruak), Donibane kalea (Kostapeko arraunlarien lokalaren atzealdetik), JJ Otaegi plaza, Herri Eskolak, San Roke kalea, eta Juan XXIII kalea.
- ↪ **Trintxerpe:** Azkuene kalea, Euskadi etorbidea eta Gudarien plaza (muga Borda-enea, Terranova eta Gudarien Plaza direlarik).
- ↪ **Pasai Antxo:** Axular plaza, Hamarretxeta kalea, Alkateordetza eta Parrokiako kalea, Viteri plaza, frontoia, Zumalakarregi kalea, Eskalantegi kalea, eta Gure Zumardia.
- ↪ **San Pedro Zaharra:** Ondartxu pasealekua, Torreatze kalea, Torreko plaza, Kepa Deuna, Arraunlarien kalea, Markina Injenieria kalea, Herriko Plaza, Passaman kalea, M.Oliver plaza, Tirri Tarren plaza, eta frontoia.
- ↪ **San Pedro Pobladoa:** Kanpitxo kalea, Pablo Enea kalea, Gran Sol kalea, Faroleku bidea, Urrestarazu kalea, Terranova kalea, Rikardo Argillaga kalea, eta Salinas.

2.3 Neurketarako metodologia

Arestian aurreratu dugun moduan, ibilbide bakoitzaren nondik norakoa zehaztu eta definitzerakoan irizpide nagusia herriko kalerik jendetsuenak biltzea izan da: plaza inguruak, parkeak, geltokiak, salerosketa kaleak, etab. Ibilbidearekin batera, neurketarako egunak eta orduak ere definitu ditugu, eta hauen hautaketan gure helburua herriko biztanle guztiak (potentzialki behintzat) neurtu ahal izatea izan da, alegia, hautatutako egunetan eta orduetan herritar guztiek izatea estatistikoki neurtuak izateko aukera.

Neurtzaileak

Kale neurketa hauek egiteko SEIko zortzi neurtzaile profesionalek eta sei herritarrek hartu dute parte: Oier Agirresarobe, Lorea Intxaurreandietak, Olatz Olaizola, Maider Lasaga, Itsaso Irastorza, Endike Olaziregi, Aintzane Lertxundi, eta Alain Mateo izan dira SEIko neurtzaileak. Herriko laguntzaileak, berriz, Joseba Campano, Oier Urtizbera, Aintzane Landa, Lorea Bergara, Sonia Hernandez, eta Eneka Fernandez izan dira. Zortzi neurtzaile profesionalek neurketa honetarako beharrezko formazioa jaso dute SEI Elkartearen eskutik, eta bertako irizpideei jarraiki bildu dituzte beharrezko errealitateari buruzko datuak.

Behaketa zuzena

Neurtzaile hauen ikerketa metodologia behaketa zuzena izan da. Hau da, hiztunak neurketaren momentuan erabiltzen duen hizkuntza jaso dute zuzenean, ezertxo ere galdetu gabe. Honela, neurtzaileek ibilbidean zehar topatzen duten jendeak darabilen hizkuntza jaso dute, horretarako espreski prestatutako fitxetan (ikus eranskinak).

Hiztunek, bada, ez dakitenez behatuak direnik, neurtzaileek hiztunaren joera naturala jaso dute. Beraz, inkestaren bidez jasotako datuen subjektibotasuna baztertzen da, modu horretara emaitza are fidagarriagoak lortuz.

Elkarrizketa hizkuntza

Ezaugarri metodologikoen artean aipatu beharreko beste bat honakoa da: neurtzen duguna, **norbanakoaren hizkuntza baino, taldeko elkarrizketa hizkuntza** dela. Kaleko erabileraz ari garela, elkarrizketak dira behatzen eta zenbatzen ditugunak, eta elkarrizketok beti dira bi lagunena edo gehiagorena artekoak (ezinbestean). Ondorioz, talde batean elkarrizketa bat behatzen dugunean, **une horretan hizketan ari denaren hizkuntza** hartzen dugu kontuan talde osoarentzat, suposatuz une horretan hizkuntza horretan ari badira, beste batean ere horrela ari direla eta, aldi berean, suposatuz taldeko hiztun hori izan beharrean beste bat balitz hizketan ari dena, neurtu dugun hizkuntza berean egingo lukeela.

Kale erabileraren neurketa izanik, hiztun talde bakoitza une labur batean baino ez dugu behatzen, eta ondorioz metodologia honekin ezin dugu taldeko kide bakoitzaren jokaera ezagutu. Dena den, hau horrela egiteko oinarri metodologikoak sendoak dira. Kanean behatzen ditugun hiztun taldeek hizkuntza jokaera finkatua izaten dute eta hau oso gutxitan aldatzen da. Neurtzen ditugunak kasurik gehienetan lagunak, familia berekoak, edota hurbilekoak izaten dira. Kasu hauetan, Euskal

Herrian behatu ahal izan diren hizkuntza ohituren arabera, erabakita egoten da —inkontzienteki bada ere— zein hizkuntzatan izango den elkarrizketa.

Euskara ez dakiteneen kasuan erabaki hori automatikoa da (gaztelaniaz, alegia). Eta dakiteneen artean, pertsona bat ezagutu eta denbora gutxira finkatu ohi da berarekin zein hizkuntza erabili. Talde batean ere antzera gertatzen da: hiztun jakin batzuen artean hizkuntza jakin bat hautatzen da eta aurrerantzean hiztun horien arteko elkarrizketak kasurik gehien-gehienetan hizkuntza horretan izango dira. Jakin badakigu hizkuntza ohiturak aldatu ere egiten direla —ahalegin horretan dihardugu, hain juxtu— baina aldaketa ez da “berez” edo modu erraz batean gertatzen, eta hain zuzen aldakaiztasun horrek, hiztun jakinen arteko hizkuntza ohiturak, oro har, egonkor izatea dakar.

Fitxak

Erabilitako fitxek, orotara, hiru gai hartzen dituzte: generoa, haurren presentzia, eta talde tamaina. Horrela, neurketarako erabili ditugun fitxen bidez, erabilera zenbatekoa den jakiteaz gain, ondorengo bi aldagai hauek euskararen erabileran duten eragina neurtzeko aukera ematen digute: generoaren eragina eta haurren presentziarena.

Ondorengo taulan egun bakoitzean erabilitako fitxak zein izan diren azaltzen da:

Eguna	Ordua	Erabilitako fitxa
Azaroak 5, asteazkena	11:00-13:00	Generoaren fitxa
Azaroak 5, asteazkena	18:00-20:00	Talde tamainaren fitxa
Azaroak 15, larunbata	12:00-14:00	Haurren fitxa
Azaroak 15, larunbata	18:00-20:00	Generoaren fitxa
Azaroak 16, igandea	12:00-14:00	Haurren fitxa

“Pasaiarren” erabilera baino Pasaiako kaleetako

Muga metodologikoak tarteko, ezin dugu erabateko ziurtasunez esan neurketa honetan jasotakoa Pasaiako biztanleen (*pasaiarren*) erabilera denik. Horren orde, zuzenagoa da esatea Pasaiako kaleetan jaso dugun erabilera dela hemen aurkezten duguna. Izan ere, ezin dugu ziurtatu kalean neurtzen ditugun hiztun guztiak herrikoak direnik. Eta gauza bera gertatzen zaigu zonaldeekin ere: zonalde bakoitzean behatutako hiztunak kale horietan bizi direla ziurtatzeko modurik ez dugu.

Bestalde, Kale Erabileraren Neurketa egitean neurtzen ditugun hiztunak ez dira beti berdinak, eta ezin dugu aurreikusi kalean noiz norekin topo egingo dugun. Ondorioz, jasotako datuak adierazgarriak izanik ere, aztergai dugun aldagaia —euskararen kale erabilera, alegia— neurri txiki batean aldagarria da. Horregatik da, besteak beste, bereziki interesgarria maiztasun jakin batekin neurketak egin eta joera nagusiei erreparatzea. Edonola ere, erabilitako metodologiak bermea ematen digu neurketa bakoitzaren emaitzetatik zenbait ondorio orokor ateratzeko.

Adierazgarritasuna

Esan bezala hainbat aldagaik erabileran duen eragina aztertu dugu neurketan: adina, haurren presentzia eta generoa, besteak beste. Horretarako zonalde bakoitzean bi orduko bost neurraldi egin ditugu. Neurraldi guztietan hiztunaren adina jaso dugu (hamar ordutan, beraz); hiztuna hurrekin dagoen ala ez bi neurralditan (lau ordutan); hiztunaren generoa beste bi neurralditan (lau ordutan); eta talde tamaina neurraldi batean (bi ordutan).

Emaitzak aztertzerakoan laginaren tamaina izango dugu kontuan, laginak gutxieneko kopuru bat bete beharko du aldagai horren eragina aztertu ahal izateko. Izan ere, aldagaia zenbat eta zehatzagoa izan lagina txikiagoa izango da eta datuek adierazgarritasuna galduko dute. Esaterako, behatutako hiztunen adina taldeka banatzeko behar adina lagin (neuritutako pertsona kopurua) izango dugu, baina adin talde bakoitzean generoaren arabera azterketa egiteko ez, aldagai bat zenbat eta gehiago deskonposatu, orduan eta lagin txikiagoa baitugu emaitzen irakurketa egiteko.

3 NEURKETAREN EMAITZAK

3.1 Emaizta orokorrak

2003ko neurketa honetan jasotakoaren arabera, **Pasaian euskararen Kale Erabilera % 17,3 da;** alegia, kalean hizketan neurtu ditugun 100 elkarrizketatatik 17 izan dira euskaraz, eta gainerakoak gaztelaniaz².

Egindako neurketetan guztira 7.378 hiztuni³ dagozkien datuak jaso dira, herriko biztanleriaren % 47,3⁴ suposatuko lukeena. Behatutako hiztun kopuru honek SEI Elkarreak neurketaren emaitzen fidagarritasuna bermatzeko ezarritako gutxieneko lagina erraz gainditzen du, eta hortaz, **neurketa honetan lortutako erabilera datuek oinarri sendoa dute laginaren tamainari dagokionean.**

Euskararen KALEKO ERABILERA (2001)	Euskararen EZAGUTZA (01)
% 17,3	% 33,5
Neurtutako hiztun kopurua	Pasaiaiko hiztun kopurua (01)
7.378 (herritarren % 47,3)	15.593

3.2 Erabileraren bilakaera

Herriko euskararen erabilera aztertzeko garaiari erabileraren bilakaerari erreparatzeak du garrantzia; batetik, normalizazio mailan egindako ahaleginen ebaluaziorako informazio interesgarria eskainiko digulako, eta bestetik, ondorengo urteetako jokaerak aurreikusten ere lagundu gaitzakeelako.

Emaitzak alderatzeko, 1991z geroztik udalerrian urtero egin diren neurketak hartu ditugu kontuan. Horretarako diseinua eta erabilitako metodologia bera izan zitezen ahalegindu gara, eta ibilbideetako kalerik gehienak bat datozela esan dezakegu. Hortaz, **sistematikoki eta modu berean egindako neurketak direnez, datuen konparaketa jaso dugu jarraian.**


Ondorengo urteetako datuak konparatu ahal izateko, funtsezkoa izango da neurketak egiten direnean oraingo diseinu osoa errepikatzen jarraitzea.

² Gaztelania eta euskara soilik hartu ditugu kontuan azterketa honetan, nahiz eta gero eta sarriago bestelako hizkuntzak ere entzuten ditugun herriko kaleetan.

³ *Hiztuna* diogunean 2 urtetik gorako biztanleriaz ari gara; hots, hitz egiteko gaitasuna 2 urtetik gorakoek dutela kontsideratu dugu.

⁴ Pasaiaik 15.593 biztanle ditu 2001eko erroldako datuen arabera. Kontuan hartzekoa da, dena den, Kale Neurketan zenbait hiztun behin baino gehiago neur daitezkeela, edota neurtutako hiztunen bat herrikoa ez izatea gerta daitezkeela.


Gatozen, bada, bilakaerara. Hona hemen 1991tik 2003rako euskararen erabilera grafikoki azaldua⁵:



* Eskala erreala 0-100 izanik ere, 0-25era egokitu dugu argiago azaltze aldera

Neurketek gorabeherak azaltzen dituzten arren, garrantzitsuena joera orokorreari erreparatzea izan ohi da. Erabilerak urte batetik bestera koskak erakusten dizkigun arren, **2001era arte beheranzko joera** nabarmendu genezake (hamarkadaren hasieratik amaierara arte 4 puntuko jaitsiera, hain zuzen ere). **2001etik 2003ra, ordea, goranzko joera** nabari daiteke erabileran; bi urteotan euskararen erabilerak 4 puntuan egin du gora (ezagutza ere, apalki, igo egin da: 2 puntu eskas).

2003an egindako neurketa hau Pasaian egiten den hamabigarrena denez, lau urtez behingo batez bestekoak zein izan diren ikus dezakegu ondorengo diagraman:



* Eskala erreala 0-100 izanik ere, 0-25era egokitu dugu argiago azaltze aldera

⁵ Udalak egindako neurketetan, nahiz eta diagraman azaldu ez, 1996 eta 97 urteetan bi hilabetetan zehar jaso ziren datuak; azaroan eta maiatzean. Guk, alderaketarako azaroko datuak baino ez ditugu aintzat hartu.

1991tik hasi eta 2003ra arte erabileraren bilakaera zein izan den erakusten digu diagramak, lau urtez behingo batez bestekoak kontuan hartuta. Modu honetara, argiago ikus dezakegu erabileraren joera zein izan den 91tik gaur egunera arte.

1991-1994 lau-urtekoan % 16,5 izan zen erabileraren batez bestekoa. Hurrengo lau urtekoan, 1995-1998, erabilera jaitsi egin zen ia lau puntutan. **Azken lau-urtekoan, berriz, 1999tik 2003ra, berriro ere errekupeazio prozesu bat antzeman daiteke;** erabilerak gora egin du ia hiru puntutan. Beraz, **91-94 lau-urteko erabilera mailara gerturatu da azken lau-urteko erabileraren batez bestekoa.**


3.3 Zonaldekako emaitzak

Herritarren leku publikoetako hizkuntza erabilera neurtzea xede izanik, **behaketa herriko bizitza soziala gertatzen den zonaldeetan** oinarritu dugu. Zonalde horiek definitzeko, udalerriko barruti eta auzo guztiak hartu dira kontuan, herritarren harreman-gune nagusiak non kokatzen diren zehaztu da, eta behin zonalde horiek definitu ostean, zonalde bakoitzaren barruan jarraitu beharreko ibilbideak erabaki dira, beti ere udaleko teknikariek elkarlanean.

Herriko hizkuntza errealitatea ezagutu asmoz, beraz, behaketak barrutika eta auzoka egin ditugu. Hala ere, **emaitzak datu orientagarriak eta hurbilpenekoak baino ez dira**, barruti zein auzo batetik besterako biztanleen mugimendua handia baita; hau da, zaila suertatzen da barruti edo auzo konkretu bateko errealitate soziolinguistiko zehatza antzematea, **mugikortasuna, barruti eta auzoen artean, etengabea delako.**

Edonola ere, udal-arduradunekin adostutakoaren arabera, herria 6 ibilbide ezberdinetan banatuta burutu dira neurketak: Donibane Zaharra, Donibane-Meipi, Trintxerpe, Pasai Antxo, San Pedro Zaharra, eta San Pedro Pobladoa. Hona hemen bakoitzean behatutako hiztun kopurua eta euskaraz neurtutakoen proportzioa ehunekotan.

Auzo edo barrutiak	Neurtutako hiztunak	Erabilera batez bestekoa
Donibane Zaharra	1538	% 31,7
Donibane Meipi	625	% 37,3
Trintxerpe	1992	% 4,8
Pasai Antxo	1518	% 17,5
San Pedro Zaharra	1122	% 17,5
San Pedro Pobladoa	613	% 4,4



** Eskala erreala 0-100 izanik ere, 0-50era egokitu dugu argiago geratzeko aldera.*

Diagraman ikus daitezkeen moduan, beraz, zonaldeei dagokionean Pasai Donibaneko bi auzoetan jaso da erabilera **indizirik altuena**; lehenik **Donibane-Meipin** (% 37,3) eta ondoren **Donibane Zaharrean** (% 31,7), hain zuzen ere. Erabilera batez bestekorik **baxuenak, aldiz, Trintxerpen** (% 4,8) **eta San Pedro Pobladoan** (% 4,4) jaso dira. Pasai Antxon eta San Pedro Zaharrean, berriz, erabilera maila berbera jaso da (% 17,5). Horrenbestez, Donibane Meipin eta Donibane Zaharrean behatutako erabilera Trintxerpen eta Pobladoan behatutakoa baino 8-9 aldiz altuagoa da.

Dena den, esan bezala, zonalde bakoitzeko datuak erreferentzia gisa erabiltzea aholkatzen dugu, ez zonalde bateko eta besteko bizilagunen arteko erabileraren konparaketak egiteko. Hala ere, kasu honetan nabarmena da **Donibane-Meipin eta Donibane-Zaharrean euskararen erabilera Pasaiako gainerako zonaldeetan baino askoz altuagoa** dela. Baina baieztapen hori indartzeko, bilakaera aztertzea garrantzitsua izango da.

Auzokako datu hauek jasotako lehendabizikoak ez direnez, aurreko urteetako neurketekin alderatuko ditugu, eta modu horretara ondorio zuzenagoak eta fidagarriagoak atera ahal izango ditugu.

3.4 Erabileraren bilakaera zonaldeka


Zonaldeka erabilerak zein bilakabide izan duen jakiteko, Pasaian 1991tik 2003a arte egin diren neurketa guztietako datuak erabil ditzakegu; izan ere, Pasaian egindako neurketa guztiak zonalde berdinetan banatuta egin baitira.

Ondorengo taulan daukagu urte horietan Pasaian erabilerak izandako bilakaera, zonaldeka emana:

Auzo edo barrutiak	ERABILERA (%)											
	1991	1992	1993	1994	1995	1996	1997	1998	1999	2000	2001	2003
Donibane Zaharra	36,3	21,9	21,6	27,2	28	36,7	36,4	29,7	35,9	30,2	31,4	31,7
Donibane Meipi	11,9	15,1	9,7	18,5	20,5	17,2	16,4	28,2	28,4	27,5	44,9	37,3
Trintxerpe	11,6	3	5,8	7,5	3,9	1,2	3,2	3,3	3,2	7,9	3,9	4,8
P.Antxo	23,1	22,2	20,6	24,4	20,4	14,2	11,2	11,9	12,9	13,6	9,9	17,5
San Pedro Zaharra	36,8	22	19,4	18,4	14	17	10,6	11,1	13,9	12,9	18,5	17,5
San Pedro Pobladoa	10,9	4,4	3,7	7,6	2,2	1,7	3,7	1,6	3	1,3	4,9	4,4

Erabileraren bilakaera zonaldeka

■ 1991 ■ 1992 □ 1993 □ 1994 ■ 1995 ■ 1996 ■ 1997 □ 1998 ■ 1999 ■ 2000 ■ 2001 ■ 2003




* Eskala erreala 0-100 izanik ere, 0-50era egokitutako argiaren azaltze aldera

Bistan denez, **barrutirik euskaldunena Pasai Donibane** da, eta auzuneetan, Donibane Meipi eta Donibane Zaharra agertzen zaizkigu erabilera indizekin altuenekin. Ondoren leudeke San Pedro Zaharra auzoa (San Pedro) eta Pasai Antxo. **Erabilerarik baxuenarekin, aldiz, San Pedro Pobladoa eta Trintxerpe** agertzen zaizkigu.


Datuak xehekiago ezagutzeko, gatozen banan-banan barruti eta auzo bakoitzaren bilakaera aztertzeraz:

Donibane Zaharrean, zerbait azpimarratzekotan, erabileraren **egonkortasuna** azpimarra genezake. Izan ere, 1991ko lehen neurketa kenduta, gainontzean goranzko joera bat antzeman badaiteke ere, joera orokorra, 1995az geroztik, erabilera % **30-35 inguruan** ibiltzea baita. Azken urteotan (2000-2003) erabilera % 30-32 artean mantentzen da auzo honetan.




* Eskala erreala 0-100 izanik ere, 0-50era egokitu dugu argiago azaltze aldera

Donibane Meipiri dagokionean, euskalduntze bizi baten adierazgarri da beheko diagrama: hamar urteren buruan erabilerak bilakaera positiboa izan duela ezin uka daiteke. 2000tik 2001era, erabileraren igoera bizkortu egin zela esan liteke. 2001. urteko neurketan emaitza oso altua jaso genuen; 2003ko neurketan, ordea, erabilera maila % 37,3ra jaitsi da. Dena dela, aurreko urteekin alderatuta, goranzko joera antzeman liteke Donibane Meipiko erabileran, 2003ko neurketan ere % 37 ingurura iritsia baita.




* Eskala erreala 0-100 izanik ere, 0-50era egokitu dugu argiago azaltze aldera

Trintxerpek, historikoki barrutirik erdaldunenetakoa izan denak, bere horretan mantentzeko joera erakusten du. 1991n izan ezik, gainontzeko urteetan % **4 inguru** behatu ahal izan da, batez beste, euskaraz hitz egiten. **Egonkortasunerako joera** da, hortaz, azpimarragarriena. 2001eko neurketan beherakada txiki bat somatu bazen ere, 2003an erabilera puntu bat igo berriro ere.




* Eskala erreala 0-100 izanik ere, 0-50era egokitu dugu argiago azaltze aldera

Pasai Antxon, aurreko hamarkadaren lehen bospasei urteetan erabileraren beherakada bat gertatu zen, % 24 inguruko erabileratik % 14 ingurura. Ondorengo 5 urteetan, ordea, % 12ko indizearen inguruan egonkortzeko joera antzeman zitekeen. **2003ko neurketan, erabilerak gora egin du maila horretatik: % 17,5eko erabilera jaso da azken neurketan, aurreko urteetako egonkortasunarekin hautsiz.** Dena den, aztertzeak izango da datozen urteetako erabilerak zein joera hartzen duen.




* Eskala erreala 0-100 izanik ere, 0-50era egokitu dugu argiago azaltze aldera

San Pedro Zaharrean, ostera, ez da joera nabarmenik antzematen. 1991ko neurketaren emaitza altuaren ondotik, hainbat gorabehera izan dira, eta joera orokorra definitzea zailtzen du horrek. Dena den, **2000. urtetik aurrera erabileran hazkunde apal bat** gertatzen ari dela ikus daiteke. Datozen urteetan aztertzen jarraitu beharko da bilakaera positibo horren jarraipena zer nolakoa den.



* Eskala erreala 0-100 izanik ere, 0-50era egokitu dugu argiago azaltze aldera

San Pedro Pobladon, azkenik, Trintxerpen gertaturikoaren antzera, **joera egonkortasunarena** da. Auzo erdaldunenetakoa den honetan, erabilera bere horretan mantentzeko joera da nagusi; % **3-4 inguruan dabil erabilera**, hain zuzen ere.




* Eskala erreala 0-100 izanik ere, 0-50era egokitu dugu argiago azaltze aldera

3.5 Adin taldekako emaitzak

Neurketako datuak adin taldeka bereizita jaso ohi ditugu. Eta adin taldeak, berriz, honela banatu ditugu:

↕	Haurrak:	2 urtetik 14 urte bitartekoak
↕	Gazteak:	15 urtetik 24 urte bitartekoak
↕	Helduak:	25 urtetik 64 urte bitartekoak
↕	Adinekoak:	65 urtetik gorakoak

Egindako neurketa guztiak batuta, honako hau da adin talde bakoitzean neurtutako euskararen erabilera:



**Eskala erreala 0-100 izanik ere, 0-50era egokitu dugu argiago geratzeko aldera.*

Diagraman ageri den moduan, alde nabarmenez gainera, **euskara gehien erabiltzen dutenak 14 urte bitarteko haurrak dira (% 35,5). Gutxien erabiltzen dutenak, aldiz, adinekoak (% 7,7) dira.** Haurren erabilera mailatik adinekoen erabilera mailara 28 puntuko aldea dago, hortaz.

Adin talderik gazteenetik adinekoenera alde nabarmena badago ere, **haurren erabileratik gazteenera dagoen jauzia da kezkarriena.** Gazteak, haurren adin taldetik hurbilen direnak izanik ere, haurren erabilera indizetik urrun gelditzen dira, eta ezagutzen aurrera eginagatik ere, gazteen artean gaztelaniaz egiteko joera nabarmena da; **ia 15 puntuko aldea** dago, hain zuzen ere, adin talde batetik bestera.

Adin taldeka banaturiko datu hauek hizkuntza errealitate kezkarria adierazten dute, zalantzarik gabe. Egia da, dena den, haurren erabileratik gazteenera dagoen jauzi hori ez dela Pasaian soilik gertatzen. **Gazteen artean euskararen erabilera haurrenaren azpitik egotea, gaur egun ohiko jazoera** dela esan daiteke. Euskal Herri mailan eta beste herri askotan egindako neurketetan

antzman ahal izan da joera hori. Bistan da, beraz, haurretariko askok beren hizkuntza ohiturak gaztelaniara aldatzen dituztela gazte izatera pasatzen diren neurrian.

Bada nabarmentzea merezi duen ez-ohiko gertaera bat: **adinekoak**, tradizionalki adin talderik euskaldunenak izan direnak, **helduen azpitik daude erabilerari dagokionean**, eta hortaz, herrian euskara gutxien erabiltzen dutenak dira. Ia bikoiztu egiten da helduen erabilera maila adinekoen erabilerarekin alderatuta (kontuan hartu bai helduen eta adinekoen ezagutza maila oso parekoa dela; %26.1 eta %26.8, hain zuzen ere).


Bai helduak eta baita adinekoak ere Pasaia batez besteko erabilera mailaren azpitik agertzen dira, hortaz. Haurrek eta gazteek gainditzen dute herriko erabilera indizea. Aurrera begira, **gazteen erabilera ohiturek hobera egiten duten arretaz aztertzea garrantzitsua izango da.**

3.6 Adin taldekako erabileraren bilakaera

Herri batean euskararen erabilera aztertzeko garaian erabileraren adin taldekako bilakaera bereziki garrantzitsua da. Normalizazio mailan egindako ahaleginen ebaluaziorako datu zehatzagoak lor ditzakegu, eta neurri batean, ondorengo urteetako jokaerak ere aurreikus genitzake.

Aurretik esan bezala, emaitzak alderatzeko 1991z geroztik udalerrian urtero egindako neurketetara jo dugu. 2003ko neurketan erabilitako diseinua aurreko neurketetan erabilitako berbera izaten saiatu garenez, konparaketa honek, erreferentzia soil bat izatetik haruntzago, ondorio zuzenak ateratzeko ere balio diezaguke.


Hona hemen, hurrengo diagraman, azken hamabi urteotan adin talde ezberdinek erabilerari dagokionean izaniko bilakaera, diagrama bakar batean jasoa:



* Eskala erreala 0-100 izanik ere, 0-40ra egokitu dugu argiago geratzeko aldera.

Diagramak modu argigarrian azaltzen duen bezala, datuak ditugunetik **haurrak dira batez ere, eta gazteak ondotik, erabilera indizerik altuena erakutsi izan dutenak** azken hamabi urte hauetan. Dena den, gazteen bilakaera, adinekoena eta helduena ez bezala, gorabehera handiko bilakaera izan da, ikus daitekeen moduan. Erabilera baxuena azaldu dutenak, aitzitik, helduak eta adinekoak izan dira.

Kasu honetan ere, 1991tik hasi eta 2003ra arte adin-taldekako erabileraren bilakaera zein izan den ikusiko dugu, lau urtez behingo batez bestekoak kontuan hartuta. Diagraman ageri zaigu adin-taldea zein izan den erabileraren joera 91tik gaur egunera arte.



* Eskala erreala 0-100 izanik ere, 0-40ra egokitu dugu argiago geratzeko aldera.


Haurren adin-taldea da hamabi urteren buruan egonkor mantendu dena, erabilerari dagokionez: % 29-30 bitartean jaso da haurren erabilera maila urte hauetan guztietan. Urte horietan hezkuntza arloan gertatu den euskarazko ereduen garapena ikusita, kezkatzekoa da haurren artean erabilera hamabi urtetan bere horretan egotea.

Gazteengan eta helduenagan erabileraren bilakaeraren joera antzekoa izan da: lehenengo lau-urtekotik bigarren lau-urtekora jaitsiera bat nabari da. Bigarren lau-urtekotik azken lau-urtekora, berriz, goranzko joera nabari da, berriro ere 91-94 lau-urteko erabilera mailaren parera iritsiz.

Azkenik, **adinekoengan, oro har beheranzko joera** nabari da hamabi urte hauetan; azken lau-urtekoetan badirudi mantsotu egin dela jaitsieraren erritmoa.


Ikus dezagun, jarraian, **adin talde bakoitzaren bilakaera banan-banan eta urtez urte:**

Haurrak dira, oro har, erabilera indizirik altuena dutenak, baita izan dutenak ere. Azken hamarkadan, erabilera % 30 inguruan kokatzen da, 3-4 puntu gora eta behera eginaz. Edonola ere, **azken biurtekoan erabilerak gora** egin du nahiko nabarmen, erabilera maila % 35,5era iritsiz.




** Eskala erreala 0-100 izanik ere, 0-50era egokitu dugu argiago azaltze aldera*

Gazteek, berriz, **ezegonkortasun** nabariagoa azaltzen dute egindako erabilera neurketetan. 1994ko eta 2000ko neurketetan jaso ziren datu altuenak (% 20-21 inguru), eta baita azken neurketa honetan ere; beste urteetan % 10-15 bitarteko erabilera behatu da. Bilakaera orokorrari dagokionez, 1996ko neurketaz geroztik nabari zen goranzko joera eten egin zen 2001ean; 2003ko neurketan, ordea, berriz ere 2000ko erabilera mailaren parera igo da erabilera, indizea % 21era iritsiz.



* Eskala erreala 0-100 izanik ere, 0-50era egokitu dugu argiago azaltze aldera


Helduen erabilera nahiko **egonkor** mantendu da hamabi urteotan. Lehen sei urteetan erabilerak beherakada bat jasan bazuen ere, orduz geroztik, apalki bada ere, goranzko joera nabarmendu da; 2003ko neurketa honetan, bereziki, hiru puntuko igoera gertatu da helduen erabileran. Gainerakoan, % 10eko indizearen inguruan egonkortzeko joera ikusi da aurreko urteetan.



* Eskala erreala 0-100 izanik ere, 0-50era egokitu dugu argiago azaltze aldera

Adinekoei dagokionean, azkenik, 1991an ezezik, gainontzean **egonkorren mantendu den adin taldea** dela ikus daiteke. 1991ko datu bitxiari gehiegi erreparatu gabe, adinekoen erabilera indizea % 10-11 inguruan egonkor ageri da 1994tik 2000ra bitartean; **azken hiru**


urteotan, ordea, beherezko joera apal bat nabari da (3,5 puntu jaitsi da adinekoen erabilera 3 urte horietan).



* Eskala erreala 0-100 izanik ere, 0-50era egokitu dugu argiago azaltze aldera

3.7 Neurketa egunen arabera emaitzak

Pasaia kaleetako erabilera aztertzeko bost neurraldi egin dira azaroan; astean zehar bi lehenak eta aste bukaeran gainerako hirurak. **Igande eguerdia izan da (azken neurraldia) erabilera mailarik altuena jaso den unea % 23,7rekin;** ondoren, larunbat eguerdia (% 20,5), eta hirugarrenik, larunbat arratsaldea (% 18).




*Eskala erreala 0-100 izanik ere, 0-50era egokitu dugu argiago geratzeko aldera.

2003ko neurketa honetan, beraz, **asteburuan erabilera maila altuagoa jaso da** astegunean baino. Dena den, ezin baiezta dezakegu asteburuan, oro har, gehiago erabiltzen denik euskara. Neurraldi batetik bestera aldea somatzen da, eta beraz, egun batetik besterako neurketen emaitzak alderatzetik ezin da ondorio garbirik atera, gure ustez.

2001eko datuei erreparatuta, ordea, orduan ere asteburuan jaso zela erabilera mailarik altuena ikus dezakegu; **joera beretsua jaso da, beraz, azken bi neurketetan**. Aurrera begira, neurketa egun eta ordu berdinetan egiten jarraituko balitz, joera modura kontuan hartzekoa izango da erabilerak gora egiten duen asteburuetan.


3.8 Sexuaren araberako emaitza

Jasotako datuen arabera, hiztunaren sexuak, hots, **hiztuna emakumezkoa edo gizonezkoa izateak ez du eragin adierazgarririk** euskararen erabileran; **emakumezkoek 1,6 puntutan gehiago erabiltzen** dute, diagraman ikus daitekeen moduan. Hortaz, emakumezkoek zein gizonezkoek euskara erabiltzeko joera berdintsua dutela esan daiteke.



** Eskala erreala 0-100 izanik ere, 0-30era egokitu dugu argiago geratzeko aldera.*

1994ko eta 2001eko datuak ere baditugu sexuari dagokion eraginaren bilakaera aztertzeko. Aurreko urteetako neurketekin alderatzen jarrita, sexuaren araberako erabilera desberdintasunean, emakumezkoak euskaraz egiteko joera zertxobait handiagoa izan duela orain artean esan dezakegu. Izan ere, **1994an emakumeen aldekoa zen diferentzia** (2,4 puntutan hobetzen zuten gizonezkoen erabilera), **2001ean ere bai** (aldea txikiagoa zen orduan; 0,7 puntu), **eta baita 2003ko azken neurketa honetan ere**. Azken bi neurketetako datuak dituzue ondorengo diagraman:




* Eskala erreala 0-100 izanik ere, 0-30era egokitu dugu argiago geratzeko aldera.

3.9 Haurren presentziaren eragina

Haurren presentziaren aldagaia ere biziki interesgarria zaigu, kasu askotan **euskararen erabileran eragin nabarmena baitu**. Egin ditugun hainbat eta hainbat neurketetan (beste udalerrietan, Euskal Herri mailakoan, etab.) haurrak tartean egotean euskararen erabilera nabarmen igotzen dela baieztatu ahal izan dugu, eta ondorioz, datuak aztertuta, joera orokorra ere badela esan dezakegu.


Gauza bera antzeman ahal izan dugu Pasaian ere, ondorengo diagraman ikus daitekeen moduan:



* Eskala erreala 0-100 izanik ere, 0-60ra egokitu dugu argiago geratzeko aldera

Haurrik ez denean, beraz, erabilera % 11,3 den bitartean, haurrak present daudenean 24 puntutan areagotzen da erabilera (% 35,1). Nabarmen beraz. Ondorioz, haurrik ez egotetik egotera dagoen hazkundera % 210,6⁷ da, edo beste modu batera esanda **hirukoiztu egiten da erabilera**. haurrak bertan daudenean. Esan bezala, hortaz, Pasaia kaleetan elkarrizketa batean haurrak tartean egotearen aldagaiak eragin nabarmena du elkarrizketa euskaraz edo erdaraz izateko.

Dena den, haurren presentziak zein eragin duen jakiteaz gain, interesgarria zaigu erabilera edo komunikazio hori zehazki zeinen artean ematen den jakitea. Hori azaltzen digu ondorengo diagramak:



** Eskala erreala 0-100 izanik ere, 0-60ra egokitu dugu argiago geratzeko aldera*

Honenbestez, **erabilerak nabarmen egiten du gora haurrek zuzenean nagusiekin hitz egiten dutenean (% 51,5)**. Kasu honetan, gainera, haurren erabilera orokorra bera ere (% 35,5) gainditu egiten du; hau da, gehiago erabiltzen da euskara haurrek gazteekin, helduekin, edo adinekoekin hitz egiten dutenean, Pasaia haurren arteko erabilera batez bestekoan baino.

Gainerakoan, **haurrak present egonik, nagusien** (gazteen, helduen, eta adinekoen) **erabilera zertxobait igo** egiten da; nagusien arteko elkarrizketetan haurrak egonez gero % 47,8 igotzen da erabilera⁸.

Nagusiak euren artean hitz egitetik (% 16,7) hurrekin hitz egitera igarotzean (% 51,5), bada, hirukoiztu egiten da erabilera; 208,4an egiten du gora, zehazki⁹.


⁷ Indize hau, haurren presentziaren eragina erakusten duena, kasu honetan honela ateratu dugu: $(35,1 - 11,3) / 11,3 * 100$.

⁸ Modu honetara ateratu dugu indizea: $(16,7 - 11,3) / 11,3 * 100$ eginez, hain zuzen.

⁹ Bigarren indize hau, aldiz, honela: $(51,5 - 16,7) / 16,7 * 100$ eginez, alegia.

3.10 Haurren eraginaren bilakaera erabileran

Haurren presentziak aldagai bezala erabileran duen eragina 1995eko eta 2001eko neurketan ere jaso zenez, ondorengo diagraman dutuen alderaketa:



* Eskala erreala 0-100 izanik ere, 0-250era egokitutako argiago azaltze aldera


Haurren eraginaren indizea zenbatekoa izan den erakusten digu grafikoak, 1995eko, 2001eko, eta 2003ko neurketetan. Argi geratzen da **hiru neurketetan haurren presentziak eragin nabarmena izan duela**. Aldagaiaren eragin nabarmenena 1995ekoa izan zen; 2001ean haurren presentziak eragin handia izaten jarraitzen zuen, baina aldagaiaren eragina 40 puntu inguru jaitsi zen sei urte horietan. Azken biurtekoan, haurren presentziaren eragina 16 puntutan igo da berriro ere.

Badirudi, datu hori koherentea dela, haurren artean erabilera mailaren bilakaera kontuan hartzen baldin badugu. 95etik 2001era haurren erabilera maila jaitsi egin zen, eta 2001etik 2003ra, berriz, igoera nabarmena izan du haurren erabilerak. Aurrera begira, aldagai honen eragina zenbatekoa den aztertzen jarraitzea interesgarria izango da.

4 HIZKUNTZA GAITASUNA ETA BILAKAERA HERRIAN



4.1 Pasaiaiko ezagutza (01)

Pasaiaiko hizkuntza ezagutza (2001eko datuetan oinarriturik) hiru kategoria nagusietan banatu dugu: euskaldunak, ia euskaldunak eta erdaldunak. Ondorengo hiru diagrametan herriko ezagutza eta kategoria biren (euskaldun eta ia euskaldunen) barne-eraketa biltzen dira (*ikus hurrengo orrian kategorია bakoitzaren azalpena*):



Pasaiaiko euskaldunak

Pasaiaiko euskaldunetan, gehiengoa, %80, alfabetatuak dira. Erdizka alfabetatuak % 16 dira, eta alfabetatugabeak, beraz, % 4 besterik ez dira.



Pasaiaiko ia euskaldunak

Ia euskaldunen kategorian, berriz, % 56 alfabetatuak dira. Bai euskaldun pasiboek eta baita alfabetatugabeek ere % 22 osatzen dute.

Kategoria hauek erroldako galdesortan euskararen jakite-mailari buruz egiten diren lau galderei (*ulertzen duzu?*, *hitz egiten duzu?*, *irakurtzen duzu?*, eta *idazten duzu?*) erantzuteko aukeran jartzen diren hiru erantzunen konbinaketa bidez lortu dira. Hitzunek *ezer ez*, *nekez*, eta *ondo* erantzuten diete galdera hauei errolda egiten denean, eta erantzun horien konbinaketatik zazpi hiztun kategoria sortzen dira:

Euskaldun alfabetatuak: euskara ondo ulertu, hitz egin, irakurri eta idazten dutenak.

Euskaldun erdi-alfabetatuak: euskara ondo ulertzen eta hitz egiten dutenak, baina nekez irakurtzen eta idazten dutenak.

Euskaldun alfabetatugabeak: euskaraz ondo ulertzen eta hitz egiten dutenak, baina ez irakurtzen eta ez idazten dutenak.

Ia euskaldun alfabetatuak: euskara ongi eta nekez ulertzen duten, nekez hitz egiten duten, eta ondo edo nekez irakurtzen eta idazten dutenak.

Ia euskaldun alfabetatugabeak: euskara ondo edo nekez ulertu, nekez hitz egin, eta ez irakurtzen eta ez idazten dakitenak.

Ia euskaldun pasiboak: euskara ondo edo nekez ulertzen eta batere hitz egiten ez dutenak.

Erdaldunak: euskara hitz egin ez eta ulertzen ere ez dutenak.


Honenbestez, diagrama nagusiari (Pasaiaiko ezagutza) erreparatuz gero, **Pasaian erdaldunak gehiengoa** direla ohar gaitezke (% **43,1**); ondotik **euskaldunak** leudeke (% **33,5**), eta azkenik, **ia euskaldunak** direnak (% **23,4**).

Euskaldunen barne-eraketari dagokionean, aldiz, % 80 alfabetatuak dira (gehiengo nabarmena, beste hainbat herritan bezala) eta euskaldunen % 4 baino ez dira euskaraz irakurtzen eta idazten ez dakitenak.

Gatozen segidan, azken urteetan Pasaian euskararen ezagutzak zer-nolako bilakaera izan duen aztertzeraz. Ditugun erroldako datuak 2001ekoak direnez, 1986, 1996, eta 2001 urteen arteko alderaketa egin dezakegu. Bilakaera ondorengo orrialdeko diagrametan duzue, lehenik hiztun tipologiaka aztertuta, eta ondoren, adin taldekako bilakaera eta inguruko bi herrirekiko (Orereta eta Donostia) konparaketa.

4.2 Ezagutzaren bilakaera

Hizkuntza gaitasunaren garapena ezagutze aldera, 1986tik 2001era bitarteko hiru hiztun tipologiaren ezagutza-bilakaera duzue ondorengo diagraman:



* Eskala erreala 0-100 izanik ere, 0-70era egokitu dugu argiago geratzeko aldera

Bilakaera oso desberdinak izan dituzte hiru hiztun tipologiek. Batzuek behera egin duten bitartean, beste batzuek erritmo ezberdinetako hazkundeak bizi izan dituzte:

Euskaldunen bilakaera positiboa izan da, hamabost urtetan **10,4 puntutan igo** baita euskararen ezagutza. Lehen hamar urteetan bilakabide abiadura beretsua mantendu da; azken bosturtekoan, ordea, bilakaeraren abiadura mantsotu egin dela esan behar da (lehenengo bost urteetan 3,8 igo zen, 1991tik 1996ra 4,8, eta 1996tik 2001era, berriz, 2 puntu eskas igo da).

Ia euskaldunek ere 12 puntutan egin dute gora hamabost urteren buruan. Baina, euskaldunetan ez bezala, hiztun tipologia honetan **bilakaeraren abiadura erabat aldatu** da: lehenengo bosturtekoan 10,5 puntuko igoera gertatu zen bitartean, bigarren bosturtekoan 0,4 puntu jaitsi zen, eta azken bosturtekoan, berriz ere 1,6 puntu igo da.

Erdaldunei dagokienean, azkenik, 22 puntutan jaitsi dira Pasaiako erdal hiztunak; beherakada nabarmena gertatu da, beraz, erdal hizkuntz komunitatean. Dena den, beherakada biziena 86tik 91ra bitartekoa izan zen (14 puntu galduz); ondoren, jaitsieraren erritmoa asko mantsotu da.

4.3 Adin taldekako ezagutzaren bilakaera

EAEn, gaur egun gaztelania nagusi den arren, duela 20 urte hartutako neurriei esker, euskararen etengabeko galera gelditu ez ezik, euskara berreskuratzen ere hasi da, batez ere hezkuntza-sistemari esker. **Berreskurapen horretaz jabetzeko, hizkuntza gaitasunaren bilakaera adinaren arabera aztertzea baino ez dago.** 1986ko eroldako datuak 2001eko eroldako datuekin erkatuz gero, euskarak batez ere gazteenen artean izan duen hazkundea nabarituko dugu.

Pasaian, horrela, ezagutzaren **bilakaerarik positiboena jasan duten adin taldeak haurrena eta gazteena** izan dira; ezagutzari dagokionez **haurrek ia 44 puntuko igoera** izan duten bitartean, **gazteek 31 puntutan hobetu** dute hizkuntza gaitasuna, hamabost urteren buruan.

Gazte nahiz haurren artean, aldaketa erabatekoa izan da. Euskaldunak duela hamabost urteren ia hirukoitza izatera pasa dira. Erdaldunek, berriz, kontrako ibilbidea egin dute.

Haurrengan ezagutzak 1991-1996 urteen artean bizi izan du gorakadarik handiena (ia 25 puntutan areagotu dira euskaldunak), eta ondorengo bosturtekoan mantsotu egin da bilakaeraren abiadura. **Gazteengan**, berriz, bilakaera proportzionala izan da hamabost urteren buruan, bosturtekoetik bosturtekora 10 puntu inguru igoaz.




Helduetan ere, oso motel eta zeharo apalki bada ere, euskararen **ezagutzak gora egin du.** Hamabost urteren buruan, **5 puntutan** areagotu baita hizkuntza gaitasuna helduengan. Hazkundearen abiadura, gainera, azkartu egin da azken urteotan.

Adinekoak dira, azkenik, **bilakaera negatiboa izan duten bakarrak**; 9 puntutan egin dute behera adin talderik zaharreneko euskaldunek. Eta bilakabide negatibo **horren ondorioz, adin talderik euskaldunena izateari utzi diote**, eta ia erdaldunena izatera pasa dira (% 26,8). Beherakada honek azalpen erraza du: helduak izan dira urteotan adin-talderik erdaldunena eta zahartzen joan diren neurrian, gora egin du erdaldunen ehunekoak adinekoen artean, eta, jakina, behera euskaldunenak.

Hau horrela, **ezagutza nolabait gatzetzen** ari dela azpimarra genezake, hots, tradizionalki adinekoek bete duten lekua, gazteenek hartu dute orain.

Adin taldeen ezagutzaren bilakaera herri mailan azertu ondoren, bilakaera hau inguruko bi herriekin alderatzea **interesgarria delakoan, Errenteriako eta Donostiako bilakaerak ekarri ditugu hona.** Hurrengo orrialdean dituzue hiru herrietako ezagutzaren bilakaeraren diagrama horiek.

Oro har, ezagutzaren **bilakaerak antzeko joera izan du hiru herri hauetan**: haurrengan eta gazteengan gertatu da ezagutza mailako bilakaerarik nabarmenena. Haurrengan, hazkundearen abiadura 91tik 96ra azkarragoa izan zen azken bosturtekoan baino. Gazteengan, berriz, bilakaera positiboa konstantea izan da Pasaian eta Donostian; Errenterian bilakaeraren abiadura azken bosturtekoan azkartu da batez ere.



Helduen ezagutza mailaren bilakaera ere positiboa izan da hiru herriotan, baina nahiko egonkor mantendu da hamabost urteren buruan, % 21-25aren inguruan. Adinekoen adin-taldea izan da, beraz, bilakaera negatiboa izan duen bakarra; oso antzeko bilakaera izan du hiru herrietan, hamabost urteren buruan 8-9 puntu jaitsiaz.

Aurrerantzean, beraz, haurren eta gazteengan bilakaeraren joera berari eusten bazaio, helduen eta adinekoen adin taldeak teorian euskaldunago bilakatuko dira, eta horrek erabileran ere eragin positiboa izango duela pentsa liteke.

5 EMAITZEN AZTERKETA ETA ESANAHIA

5.1 Espero daitekeen erabilera: kontzeptuaren azalpena

Atal honetan erabilera erreala eta espero daitekeen erabilerearen (erabilera isotropiakoaren) arteko alderaketa egingo dugu; bata, erabilera erreala, Kale Neurketan jasotako emaitza da, eta bestea **J.L Alvarez Enparantzaren –Txillardegiren- eredu matematikoa** aplikatu ondoren lortutakoa. Horretarako euskararen ezagutza mailaren arabera espero daitekeen erabilera kalkulatu da, hau da, ezagutza hainbestekoa izanik (gure kasuan % 31,7 da) bikotekako, hirukotekako, eta laukotekako elkarrizketetan euskaraz hitz egitea estatistikoki zenbatean den posible aztertzeko da. Horretarako gure hipotesian euskaldunak euskaldunekin elkartzeko direnean BETI euskaraz mintzatuko direla suposatuko dugu; egoera baikorrena beraz, elebidunak euskararekiko erabat leialak baitira, eta elebidun batekin topatzean beti euskaraz arituko dira.

Beraz, hipotesi horri jarraituta ezagutza eta erabilerearen arteko erlazioa aztertuko dugu. Sarritan entzun ohi da erabilera ezagutza mailara iristen (edo gerturatzen) ez den bitartean, erabilera baxua dela. Baieztapen hori, ordea, ez da zuzena, ezagutza eta erabilera ezin daitezkeelako bat etorri.

Azter dezagun ezagutza eta erabilerearen arteko erlazio hori adibide batekin:

Eman dezagun laukote batean (A, B, D, C) hiru elebidun ditugula: A, B, D. Demagun elebidun horiek euskararekiko erabat leialak direla, alegia, beraien mintzakideak euskaraz baldin badauki beti euskaraz aritzen direla (adibiderako hipotesi didaktiko bat da, dudarik gabe).

Laukote horretan euskararen **ezagutza** % 75 da, lautik hiru baitira euskaraz hitz egiteko gai. Azter dezagun jarraian euskararen **erabilera**.

Horretarako **zoriz** gerta daitezkeen elkarrizketa posibleak kalkulatu ditugu.

Bikoteka, 6 talde ditugu: AB, AD, AC, BD, BC, eta DC. Horietatik C ez dagoenean hitz egingo da euskaraz, hiru kasuetan beraz (AB, AD, eta BD), beste bikoteetan erdaldun elebakarra baitago.

Hirukoteka, 4 talde ditugu: ABD, ABC, ADC, eta BDC. Horietatik elkarrizketa bakarrean hitz egingo da euskaraz (ABD), gainontzeko hiruretan erdaraz mintzatuko dira.

Azkenik **laukotea**, talde bakarra dugu. Eta noski C erdaldun elebakarra bertan egonez gero, erdaraz arituko dira.

Ondorioa garbia da: **hamaika taldetatik** —6 bikote, 4 hirukote eta laukote 1— **lau taldetan** arituko dira euskaraz — 3 bikotetan eta hirukoteko batean—. Hau da, taldeen % 36,4ean arituko dira euskaraz.

Hortaz, euskararen **ezagutza % 75** delarik, eta euskaldunak aukera guztietan (mintzakidea euskalduna den guztietan) euskaraz arituko direla suposatuta —**egoera baikorrena**, beraz— erabilera **%36,4 da**.

5.2 Erabilera erreala eta espero daitekeen erabilera

Aurreko adibidearen oinarria matematikara ekarrita, J.L. Alvarez Enparantzak *-Txillardegik-* espero daitekeen erabilera kalkulatzeko eredua sortu du. Ikus dezagun jarraian Pasaian egindako eredu horren aplikazioa.

Pasaiaiko euskararen ezagutza, 2001eko erroldaren arabera, % 33,5 da. Espero daitekeen erabilera (edo erabilera isotropiakoa) ondorengo formularekin kalkulatu dugu:

$$P_B = m_B (w_2 e_x^2 + w_3 e_x^3 + w_4 e_x^4)$$

P_B =euskararen erabilera maila

m_B =euskararekiko leialtasuna

w_2 =bikotearen pisua

w_3 =hirukotearen pisua


w_4 =laukotearen pisua

e_x =elebidunen proportzioa

Euskararen erabilera maila:

$$1(0,5488 \cdot 0,335^2 + 0,2862 \cdot 0,335^3 + 0,1650 \cdot 0,335^4) = 0,074 = \text{\% } 7,4$$

Hortaz, Pasaiaiko biztanleen arteko zorizko harreman posibleetan, estatistikoki espero daitekeen euskararen erabilera % 7,4 da. Kale Neurketak jaso duen erabilera erreala, ordea, % 17,3 da. Espero daitekeena baino altuagoa, hain zuzen.



**Eskala erreal 0-100 izanik ere, 0-20ra egokitu dugu argiago geratzeko aldera*

Esan bezala espero daitekeen erabilerak zera adierazten du: herriko edonork beste edonorekin hitz eginez gero (ausazko konbinaketak eginaz), zenbat aukera dauden estatistikoki biak euskaldunak izateko. Beste era batera esanda, euskaldunek, aukera duten egoera guztietan (leialtasuna %100) euskaraz egiten dutela suposatuz, erabilera zenbatekoa litzatekeen.

Hau erreferentzia teorikoa da, dena den. Jakin badakigu praktikan:

- a) euskaldunen leialtasuna ez dela % 100ekoa izaten: euskara dakitenen arteko elkarrizketak ez direla kasu guztietan euskaraz izaten.
- b) herriko edonork ez duela praktikan beste edonorekin harremanik izaten (harreman gehiago dugu gure ingurukoekin, adin berekoekin eta herriko zenbaitekin ez dugu praktikan inoiz harremanik).

Hau guztia kontuan izanik, Erabileraren Neurketan jasotako emaitza honela baloratu dezakegu *espero daitekeen erabilerarekin* alderatuta:

Erabilera errealak isotropiakoa bikoiztu egiten du. Eta horretarako, arrazoi nagusiak bi izan daitezke¹⁰:

1. Herriko euskaldunak trinkoturik bizi dira, gehienbat beraien artean dituztelako harremanak. Honela, egunerokoan euskaldunak erdaldunekin erlazio gutxi izatean euskararen erabilera estatistikoki espero dena baino altuagoa da.
2. Herriko euskaldunen leialtasuna handia da, eta ondorioz, euskaldunen arteko elkarrizketak gehienetan euskaraz dira. Horrek ere, euskararen erabilera estatistikoki espero dena baino altuagoa izatea ekarriko du.

Espero daitekeen erabileraren inguruan gehiago sakondu nahi izanez gero, “*Txillardegiren* eredu matematikoa eta erabilera isotropiakoa” eranskinera jo dezakezue.

¹⁰ Balorazio hauek egiteko ezinbestekoa da erabileraren bilakaera eta herriaren ezaugarriak sakonkiago aztertzea eta ezagutzea. Honako hau ditugun oinarritzko datuekin egindako irakurketa bat, modu hertsian baino hipotesi bezala gehiago ulertu behar dena

5.3 Eskualdeko¹¹, probintziako eta EAEko datuekiko alderaketa

PASAIAn	ezagutza (01) % 33,5	erabilera (03) % 17,3	espero zitekeen erabilera (01) % 7,4
---------	-------------------------	--------------------------	---


Eskualdeko hainbat herriren datuak:

LEZO	ezagutza (01) % 55,9	erabilera (02) % 38	espero zitekeen erabilera (01) % 23,8
------	-------------------------	------------------------	--

LASARTE-ORIA	ezagutza (01) % 37	erabilera (02) % 15,7	espero zitekeen erabilera (01) % 9,3
--------------	-----------------------	--------------------------	---

ANDOAIN	ezagutza (01) % 50,2	erabilera (02) % 23,1	espero zitekeen erabilera (01) % 18,5
---------	-------------------------	--------------------------	--

Ondorengo diagraman Donostialdeko hainbat herriren¹² ezagutza eta erabilera jasotzeaz gain, duten ezagutzaren arabera espero daitekeen erabilera (isotropiakoa) biltzen da:



Oharra: 2001. urteaz geroztik Donostialdeko herrietan egindako neurketetatik, emaitza hauek lortu ditugu. Lasarte-Oriako datuaren iturria Lasarteko Udala izan da.

¹¹ Eskualdea definitzerakoan, EUSTATEk egiten duen banaketa hartu dugu kontutan; 11 udalerrri biltzen dituen Donostialdea, hain zuzen.

¹² Eskualdeko herriak hautatzerakoan ez ditugu aintzat hartu 3.000 biztanletik beherako herriak, 1997ko neurketan guk ezarritako laginaren gutxienekoak gainditzen ez dituztenak

Ezagutzari erreparatu gero, Pasaia da eskualdeko herrien artean ezagutza maila baxuenetakoa duena (% 33,5). Erabilerari dagokionez, ordea, Lasarte-Orian baino zertxobait altuagoa jaso da Pasaian (% 17,3), nahiz eta Lasarte-Oriako ezagutza maila Pasaiaikoaren gainetik egon.


Honenbestez, eta garrantzitsuena dena laburbiltzekotan, arestian aipatu bezala, Pasaian jaso den erabilerak (% 17,3) espero zitekeen erabilera (% 7,4) gainditu egiten duela azpimarratu behar da. Joera hau orokorra da; eta diagraman eskualde bereko lau herri horietatik guztietan gauza bera gertatzen dela ikus dezakegu. Dena den, aldea badago erabilera isotropiako gaitzeko tarte horretan; Pasaian eta Lezon tarte handiagoz gailentzen da, Lasarte-Orian eta Andoainen baino.

Eskualdeko, probintziako eta EAEko datuak:

DONOSTIALDEAn	ezagutza (01) % 39,2	erabilera (01) % 19,5	espero zitekeen erabilera (01) % 10,5
---------------	-------------------------	--------------------------	--

GIPUZKOAn	ezagutza (01) % 51,5	erabilera (01) % 29,9	espero zitekeen erabilera (01) % 19,6
-----------	-------------------------	--------------------------	--

EAEan	ezagutza (01) % 32,3	erabilera (01) % 16,1	espero zitekeen erabilera (01) % 6,9
-------	-------------------------	--------------------------	---



Pasaiako erabilera eskualdeko, herrialdeko eta EAEko erabilerarekin alderatzen badugu, Pasaiako kaleetan jasotako euskararen erabilera (% 17,3) EAEkoaren paretsukoa dela eta gainerakoen azpitik geratzen dela nabarmendu daiteke. Ezagutza maila ere EAEkoaren oso antzekoa da, eta Donostialdean eta Gipuzkoan baino baxuagoa.

6 DATOZEN 10 URTEETARAKO PROSPEKZIOA (2003-2013) (BEGIRA)

Atal honetan, datozen urteetarako herriko euskaldungoaren bilakaeraren prospekzioa duzue. Prospekzioa SEI Elkarteak sorturiko BEGIRA tresna erabiliz prestatu dugu eta euskararen ezagutzak, zein espero daitekeen erabilerak datozen 10 urteetan herrian izango duen bilakaeraren berri ematen digu.

Ezagutzaren bilakaera:

HERRIA	BIZTANLERIA		EUSKALDUNAK		HAZKUNTZAK	
	1996	2001	1996	2001	Bizt.	Eusk.
Pasaia	17003	15593	5383	5221	-1,7	-0,6

BEGIRA erabiliz, zera kalkulatu dugu: 1996 eta 2001 urteetako erroldetako biztanleria eta euskaldungoaren datuetatik abiatuta, euskaldunen kopuruak teorikoki zein bilakaera jarraituko duen datozen urteetan (96tik 2001erako bilakaera berdina jarraituta). Ondorengo taulan dituzue urtez urteko datuak:


Pasaia	Euskaldun kopuruaren bilakaera											
	2001	2004	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014
Euskaldunak	5221	5126	5095	5064	5033	5002	4972	4942	4911	4882	4852	4822
%a	33,5	34,6	35	35,4	35,8	36,2	36,6	37	37,5	37,9	38,3	38,7

Halaber, ezagutzaren bilakaera honetan oinarrituta “espero daitekeen erabilera” edo “erabilera isotropiako” ere kalkula genezake, *Txillardegiren* eredu matematikoan oinarrituz:

Erabilera isotropikoaren bilakaera:

Pasaia	Erabilera isotropikoa (estimazioa)												
	2001	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	
Erabilera (%)	7,4	8,2	8,4	8,6	8,8	9,1	9,3	9,5	9,8	10	10,3	10,5	

Ondorengo diagraman duzue Pasaian datozen 11 urteetan ezagutzak eta erabilera isotropiakoak izango duten **bilakaeraren prospekzioa**:



** Eskala erreala 0-100 izanik ere, 0-50era egokitu dugu desberdintasunak argiago irudikatze aldera*

BEGIRA aplikazioa baliagarria zaigu kasu askotan ditugun datuetatik abiatuta bilakaera zein izango den jakiteko.

Kontuan izan, BEGIRAKo prospekzioa egiteko 1996ko eta 2001eko erroldako datuak erabili ditugula. BEGIRAK,, ezagutza aldetik urte horietan eman den bilakaera bere horretan mantenduz gero, ezagutzak (eta horren arabera erabilera isotropiakoak) zein bilakaera izango duen azaltzen digu. Kontuan izan 96tik 2001era Pasaian euskararen ezagutzak, apalki bada ere, gora egin duela. Eta, hain zuzen, prospekzio honek adierazten diguna zera da, urte horietako bilakaera mantenduta urtez urte zein izango den ezagutza.

Kontuan izan, dena den, gaur egun Pasaia erabilera, espero daitekeena baino altuagoa dela, eta beraz, bilakaera erreala ere horrela izango dela pentsa dezakegu.

7 ERANSKINAK

7.1 Txillardegiren eredu matematikoa eta erabilera isotropiakoa

OINARRI TEORIKOAZ ETA KONTZEPTUAREN ESANAHIARI BURUZKO ZENBAIT AZALPEN (laburpen gisa)

Txostenean “*espero daitekeen erabilera*” bezala izendatu duguna, berez, J.L. Alvarez Enparantza “*Txillardegik*”k garaturiko “*erabilera isotropiakoa*” da, eta egile beraren Eredu Matematikoan oinarrituriko kontzeptua da. Ondorengo lerrootan kontzeptu honen oinarria, esanahia eta erabilgarritasunari buruzko laburpen bat duzue.

Gaiari buruz informazio osatuagoa nahi duenak jo beza BAT Soziolinguistika aldizkariaren 28. zenbakira (51-68 orr, Xabier Isasi eta Arantxa Iriarteren artikulua, bertatik hartu ditugu laburpen honetan letra etzanean ageri diren testu batzuk). Eredu osoa, berriz, *Txillardegik* eta Xabier Isasik argitaraturiko *Soziolinguistika Matematikoa* liburuan duzue (UEU-EKB, Bilbo; 1994).

Laburpen honetan *Txillardegiren* eredutik zenbait puntu aipatuko ditugu soilik, Kale Erabileraren Neurketa egiteko moduarekin eta Erabilera Isotropiakoa kontzeptuarekin lotura zuzena dutenak, beti ere erabilitako metodologiaren eta kontzeptuen ulermena errazteko xedez.

Abiapuntua: ukipen egoera

Hasteko, kontuan izan behar dugu gurea hizkuntza ukipen egoera bat dela (gure kasuan, gizarte berean bi hizkuntza):

Txillardegik garatutako eredu matematikotik alderdi bat besterik ez dugu hartu. Hizkuntzen arteko ukipen egoerari aplikatuko diogu. Egoera horretan, esan dugunez, B hizkuntzako hiztun elebakar multzo esanguratsurik ez dago, hiztun guztiak A hizkuntzaren jabe diren bitartean, haien arteko batzuk B hizkuntza jakin eta erabiltzeko moduan daude.

(gure kasuan B euskara litzateke eta A gaztelania edo frantsesa).

Elebidunen aldetik B hizkuntzaren erabilera gertaera estokastiko gisa definitu dugu. Azken buru, ez dugu ezagutzen alde aurretik zein den elebidunen portaera linguistikoa. Biztanle bakoitzak eta guztien artean momentu jakinetan hizkuntza harremanen bat gerta daitekeela suposatzen badugu, orduan B hizkuntzaren erabilera maila elebidunen proportzioaren funtzio zuzena izaten da.

Hortaz, kontuan izan behar dugu, batetik **ukipen egoeran gaudela** eta gainera, gure kasuan, euskara dakiten guztiek dakitela gaztelania edo frantsesa. Ondorioz, euskara egoera jakin batzuetan erabili ahal izango da, eta egoera horien zenbatekoa B hizkuntzaren hiztunen (alegia, euskaldunen) proportzioaren arabera izango da. Gogoan izan **erabiltzeko aukeraz** ari garela,

aukera potentzialaz, gero beste gauza bat da zer hizkuntza jokaera duten elebidun horiek, baina aukerak zenbat izango diren kalkula dezakegu.

Probabilitatea:

Zein da B hizkuntzako 2 hitzunen arteko elkarrizketa bat gertatzeko probabilitatea?

$$PR_{BB} = e_B \cdot e_B = e_B^2$$

Non, e_B euskal hitzunen proportzioa den (Otik 1era)

Demagun, adibidez, %55a euskalduna den herri batean garel. Bertako bi biztanle (edozein) kalean elkartzan badira, zenbatekoa da biak euskaldunak izateko probabilitatea?

$$PR_2 = 0,55 \cdot 0,55 = 0,302 \text{ edota } \% 30,2$$

Baina, noski, kalean ematen diren elkarrizketak ez dira beti bi pertsonen artekoak izaten: bikoteen, hirukoteen, laukoteen eta hitzun talde handiagoen arteko elkarrizketak ere eman daitezke. Eta zenbatekoa da hirukote bat kalean elkartzuta elkarrizketa euskaraz izateko probabilitatea, alegia; zenbatekoa da hiru hitzun horiek euskaldunak izateko probabilitatea? (lehenengo adibide bera erabiliz);

$$PR_3 = 0,55 \cdot 0,55 \cdot 0,55 = 0,166 \text{ alegia } \% 16,6$$

Eta hirukotea izan beharrean, laukotea bada, probabilitatea oraindik eta gehiago gutxitzen da:

$$PR_4 = 0,55 \cdot 0,55 \cdot 0,55 \cdot 0,55 = 0,091 ; \% 9,1$$

Eta probabilitatea gero eta txikiagoa da taldea handitu ahala. *Txillardegiren* hitzetan: “*talde handietan (n = 4,5,6,...), B hizkuntzaren erabilerak erritmo esponontzial batean egiten du ihes*”. Eta errealitatean zenbateko taldetan ematen dira elkarrizketak? Orain arte Euskal Herri mailan egindako Kale Erabilera Neurketen informazioa erabil dezagun horretarako:

Bikote, hirukote eta laukoteen proportzioa:

EKBk 1993 eta 1997ko neurraldietan solaskide kopurua behatu zuen. Hau da, behatutako elkar hizketak bikoteetan, hirukoteetan, laukoteetan, boskoteetan edo talde handiagoetan gertatzen zirenen arabera, bikote, hirukote, laukote, boskote,... kopuruak zenbatu eta haien artean zeintzuk egiten zuten euskaraz zehaztu ere.

Bi neurketaldi horietan solaskide kopuruaz, guk w_i pisu estatistikoak deitutakoaz, jasotako datuetatik abiatuz, laukoteetara mugatu dugu hitzun taldeen tamainaren eragina eta w_2 , w_3 eta w_4 pisu estatistikoak balio finkotzat jo. Horrela, batenaz beste bikote, hirukote eta laukoteen pisuak ondorengoak finkatu ditugu:

$$\begin{aligned} w_2 &= 0.5488 \\ w_3 &= 0.2862 \\ w_4 &= 0.1650 \end{aligned}$$

Beraz, kalean behatutakotik ondorioztatu dugu lau hiztunetik gorako taldeen arteko elkarrizketak oso gutxitan gertatzen direla (talde handiagoetan normalki ez da elkarrizketa bakarria egoten, gehiago baizik). Bestalde, orain badakigu bikote, hirukote eta laukoteen pisua zenbatekoa den eta proportzio hori gure kalkuluetan finkotzat hartuko dugu.

Horrela ba, probabilitate mailan, euskarazko elkarrizketak gerta daitezen dagoen aukera (berriz ere e_B herriko euskaldunen proportzioa izanik) hau izango da:


$$PR_B = w_2 e_x^2 + w_3 e_x^3 + w_4 e_x^4$$

Baina, noski, gogoan izan hasieran aipatu duguna: **ukipen egoeran gaudela** eta gainera, gure kasuan, euskara dakiten guztiek dakitela gaztelania edo frantsesa. Ondorioz, *Txillardegik* dioskunez: “*B –ren erabilera eman dadin erabat beharrezkoa den baldintza bakarria da elebidunak, horretara beharturik ez egon arren, leialtasunez, beraien artean B erabiltzen jarraitzea (lasai-lasai erabil baitezakete A beraien artean ere)*”.

Orain arteko urratsetan, elebidunen proportzio jakin bat izanik, hiztunen artean euskarazko elkarrizketak eman daitezen zenbat aukera ditugun kalkulatu dugu. Baina, jakina, mila arrazoi ezberdin tarteko, gerta daiteke euskaldunen arteko elkarrizketak erdaraz izatea. Beharrezko ez izanik ere euskaraz egite hori *Txillardegik* hizkuntza leialtasun bezala izendatu du (m_B).

Erabilera maila hiru osagaien funtzio zuzena izango litzateke, elebidunen proportzioa (e_x), mintzakide taldearen tamaina edo solaskide kopurua erabilera askean (w_i) eta hizkuntza gutxiagotuarekiko leialtasuna (m_B). Horrela, erabilera maila kalkulatzeko formula ondorengoa izango litzateke.

$$P_B = m_B (w_2 e_x^2 + w_3 e_x^3 + w_4 e_x^4)$$



Hizkuntza gutxiagotuaren erabilera maila isotropiakoa

Formula honetatik abiatuta, erabilera isotropiakoa (edo espero daitekeena) kalkulatzeko $m=1$ dela suposatuko dugu, alegia, euskara dakitenen arteko elkarrizketak ematen direnean beti euskaraz direla eta egoera isotropiakoa dela. Formula, hortaz:

Azken oharrak: ISOTROPIA / ANISOTROPIA eta KONPAKTAZIOA:

Probabilitateak kalkulatzeko garaian, B hizkuntzaren ageriko erabilera zorizko gertaeratzat jo dugu. Nonahi eta noiznahi ager daitekeen jazoera dela esan nahi dugu. Gure erdua eredu estokastikoa dela esaterakoan, B hizkuntzaren erabilerari buruzko aurriritzi guztiak baztertzen ditugula esan gura dugu, zuzenak zein okerrak, ez dugu aurriritzi bakar bat onartzen. Esaten dugu, B

hizkuntzaren erabilera, elebidunak tarteko direlarik, gertaera probablea dela, besterik ez. Orokorrean, kontrako frogatu ezean, gizartea linguistikoki **isotropiakoa** da; B hizkuntzaren erabilera, printzipioz, elebidunen proportzioaren funtzio zuzena da.

Orain arteko urratsetan gizarteko egoera isotropiakotzat hartu dugu, hortaz: alegia, suposatu dugu edozein hiztunek beste edozeinekin hitz egiteko probabilitatea duela.

Dena den, J.L. Alvarez Enparantzak eta X. Isasik egindako azterketetan ikusi da herri askotan hori ez dela horrela. Neurketak eginda, kasu batzuetan m -ren balioa 1 baino handiagoa lortzen zen neurketaren emaitza erreala gorago azaldu dugun formularen sartuta, eta hori estadistikoki onartezina da (leialtasuna %100ekoa baino handiagoa izatea suposatuko luke). Txillardegiren hitzetan “Neurketen emaitzak (mota guztietako herrietan behin eta berriz errepikatuak) soilik uler zitezkeen A hizkuntzako elebakarren kopuru handi bat hiztun elebidunekin harremanetan ez zegoela suposatuz. A hizkuntzako elebakarren isolamentu linguistiko honek B hizkuntzaren erabilera hobetzen du”

”Horrek behartu gintuen isotropia linguistikoaren hipotesia alde batera uztera. **Euskal Herrian ez da isotropia hori ematen**”

Horrek esan nahi du nolabait gure herrietan bi sare edo komunitate ezberdin daudela (euskarazkoa eta erdarazkoa) eta bateko zein besteko kideen artean harremanak izateko aukera ez dela estatistikoki askea, ausazkoa, guk hasieran suposatu dugun bezala. Beste modu batean esanda, hiztun bakoitzak bere sareko kideekin maizago ditugula harremanak beste sarekoekin baino.

Errealitate honetaz jabetzeak eraman zituen J.L. Alvarez Enparantza eta X. Isasi eredu matematikoaren garapenean urrats berriak ematera. Besteak beste, “gizarteratze tasa” (g) kontzeptua erabili dute, aipatu bi sareen arteko integrazio maila deskribatzeko.

Gorago esan bezala, neurketen emaitzetako bat izan da ohartzea badagoela A hizkuntzako elebakarren proportzio bat ez duena elebidunekin harremanik izaten. $g=0$ izango da inolako harremanik ez dagoenean (alegia, erdaldunen eta euskaldunen sareak bata besteagandik erabat berezita bizi direnean, harremanik gabe) eta $g=1$ izango da herriko A elebakar guztiak elebidunen sarean erabat integratuta dauden kasuetan (kasu honetan sare bakarrean leudeke guztiak, elebakarrak eta elebidunak).

Pentsatuko duzue, kasu errealik gehienak mutur batean zein bestean baino, bien artean kokatzen dira. Horrela, hemen aipatu ditugunez gain beste formula batzuk ere erabilia, kaleko erabilera neurtuta Txillardegiren eredu iristen da komunitate baten leialtasuna (m) eta gizarteratze tasa (g) zehaztera. Azken honek, nolabait Txepetx-ek definituriko euskaldungoaren konpaktazioa kontzeptuaren antzeko zerbait adierazten digu.

Dena den, Kale Erabileraren neurketa egin dugun honetan leialtasun eta konpaktazio kalkulurik egin ez dugunez, oraingoan kontzeptu hauen aipamena baino ez dugu egin nahi, interesa duen oro hasieran aipatu iturrietara jotzera gonbidatuz.

Ikusi dugu, hortaz, nola kalkula daitekeen **erabilera isotropiakoa** herri batean euskaldunen proportzioa zenbatekoa den jakinda. Gerora ikusi dugu nola praktikan Euskal Herrian ez den egoera isotropiakoa ematen, eta **gizarteratze tasa** ere kontuan hartu behar dugun.

Dena den, erabilera isotropiakoa oso erabilgarria zaigu, herrian neurtu dugun erabilera errealaren emaitzak altuak edo baxuak diren baloratu ahal izateko erreferentzia teoriko bat ematen digulako. Eta, horretarakoxe erabili dugu guk erabilera isotropiakoa txosten honetan.

2002ko urtarrilean

SEI elkarte

Ikerketa eta Neurketa taldea

7.2 Neurketa arauak eta oharrak

Zer neurtu behar da?

Kalean, eta **kalean soilik dabilen jendearen** arteko hizkuntz erabilpena. **Leku itxiak** beraz (tabernak, dendak, kiroldegiak, etxeak, lantegiak, garraioak, edonolako lokalak,...), **neurketa honetatik kanpo geratzen dira**.

Neurketa, ez inkesta:

Kalean goazela jendeari ez zaio galdetu behar normalean zein hizkuntza hitz egiten duen edo une horretan zein hizkuntzaz ari den mintzatzen. Ez **galdetu, entzun** egin behar dugu eta entzuten dugun hizkuntza jaso taulan, jendeari ezer esan gabe. Gure helburua kaleko hizkuntza errealitatea bere horretan jasotzea da, ahalik eta modurik objektiboenean kalean doazenek ez dute jakin behar neurketa egiten ari garenik.

Ibilbidea:

Neurketa egiteko **ibilbide jakin bat** egongo da finkaturik aldezturik (SEIko teknikariek Udalekoekin adostua). Ibilbidea herriko kalerik jendetsuenek osatuko dute, normalean erdigunean (erdigunea zentzu zabalean ulertuta). Ibilbideak inguru ezberdinak zeharkatzea komeni da: erosketakaleak, poteo kaleak, haur jolas-lekuak, pasealeku eta parkeak, etab. Ibilbideak hasi eta bukatu leku berean egin behar du eta **neurtzaileak behar hainbat aldiz egingo du ibilbidea**, neurraldi bakoitzak irauten dituen bi ordu horietan.

Neurtzaile bakoitza bere ibilbidean paseatzen ibiliko da. Ez dago arazorik noizbehinka eserlekuren batean eserita neurketa egiteko, eta batzuetan gainera, disimulatzeko beharrezkoa ere izango da. Baina eserita denbora gehiegi ematea ere ez da komeni. Izan ere, helburua neurketa ibilbide guztian zehar egitea da (gainera, plaza edo antzerakoetan ez bada, eserita egonda jende gutxiago neurtuko dugu).

Datuak nola jaso:

Datuak idazteko honekin batera doan eredu erabiliko duzue, eta han ageri den moduan idaztea komeni da, hots, neurtutako lagun bakoitzeko makilatxo bat jarritz.

Hiru motatako fitxak daude; **eta neurraldi bakoitzean dagokiona erabili behar da (arduradunak adieraziko dizue zein)**. **Fitxa bakoitzean hiru datu hartzen dira kontuan:** (Lehenengo bi datuak hiru fitxetan errepikatzen dira).

1. Adin taldea: haurrak (14 urte bitartean), gazteak (15-24 urte), helduak (25-64 urte) eta zaharrak (65 urtetik gorakoak). Jendeak zein adin izango duen sumatzea neurtzaileen egitekoa izango da, eta gutxi gorabehera egin beharrezkoa da.

2. Hizkuntza: euskara edo erdara (gaztelania).

3. Fitxaren arabera:

- Talde tamainaren araberako fitxan **taldearen tamaina** hartzen da kontutan, hau da, bikote, hirukote, laukote, boskote ala talde handiagoetan dabilen jendea.

- Generoaren araberako fitxan **generoa** aztertzen da.

- **Haurren presentziaren** araberako fitxan, mintzakideen artean haurrik badagoen aztertzen da.
- Horretaz gain, bada laugarren fitxa bat “**bakarrizketak**” jasotzeko erabiliko duguna.

Adibideak:

Neurketa nola egiten den azaltzeko **bi adibide** jarriko ditugu:

1.- Bi haur (bi neska) badoaz euskaraz hitz egiten

- Talde tamainaren araberako fitxan: bikoteei dagokien tartean eta euskarazko zutabeen haurren atalean bi makilatxo jarri.
- Generoaren araberako fitxan: Emakumezkoiei dagokien tartean eta euskarazko zutabeen haurren atalean bi makilatxo jarri.
- Haurren presentziaren fitxan: “haurren presentzia bai” tartean, “haurren arteko elkarrizketa” kategorian euskarazko zutabeen bi makilatxo jarri.

2.- Senar emazteak 5 urteko alabarekin eta 16 urteko semearekin badoaz eta erdaraz hitz egiten ari dira:

- Talde tamainaren araberako fitxan: **laukoteei** dagokien tartean eta **erdarazko** zutabeen **helduen** atalean bi makilatxo jarri, **haurren** atalean bat eta **gazteen** atalean beste bat.
- Generoaren araberako fitxan: **Emakumezkoiei** dagokien tartean eta **erdarazko** zutabeen **haurren** atalean makilatxo bat jarri eta beste bat **helduenean**. **Gizonezkoen** tartean **gazteen** atalean ere makilatxo bat eta azkena **helduenean**.
- Haurren presentziaren fitxan:

a).- Zuzenean amak alabari hitz egiten badio, **bi** makilatxo jarriko ditugu (**BESTE BIAK KONTUAN HARTU GABE**). “**Haurren presentzia bai**” tartean, “**haur/nagus**i/haur arteko **elkarrizketa**” kategorian eta **erdarazko** zutabeen **helduen** atalean makilatxo bat, **haurren** atalean beste bat.

b).-Zuzenean amak semeari (edo aitari; alegia, haurrari **zuzenean ez**) hitz egiten badio, **lau** makilatxo jarriko ditugu. “Haurren presentzia bai” tartean, “**nagusien arteko elkarrizketa** (haurrak ez dira mintzakide)” kategorian eta **erdarazko** zutabeen **helduen** atalean bi makilatxo jarri, **haurren** atalean bat eta **gazteen** atalean beste bat.

Azalpena merezi duen puntua da hau : lau lagun elkarrekin doazenean **normalean bat entzungo** dugu hizketan eta beste hirurak entzule izango dira (arreta gehiago edo gutxiago jarriaz, guri hori ez zaigu axola). Kasu horretan **guk fitxan lau lagun entzun dugula jarriko dugu**, hau da, lau makilatxo, hizketan zihoan bakar horren hizkuntzan.

- Laugarren fitxa, “**bakarrizketak**” neurtzen dituen fitxa, **hiru neurralditan neurtuko da**. Bertan bi aukera ditugu: eskuko telefonoz hitz egiten ari direnak eta bestelakoak (animaliekin, atarietako interfonoz, etab.) Fitxa horretan, jakina, elkarrizketa bakoitzeko marratxo bakarra egingo dugu, mintzakide bakarra entzun (eta ikusiko) baitugu.

Beste ohar batzuk:

- Entzuten den guztia apuntatu behar da. Hau da, ibilbidean zehar norbait birritan entzun arren, birritan jasoko da bere erabilera. Hala eta guztiz ere, ezingo dugu behin eta berriz jende berberaren itzulinguruan ibili, beti datu bera jasoaz (Erreferentzia moduan, 2000 biztanletik beherako herrietan pertsona bera —**neurraldi eta elkarrizketa berean**— ez dugu bi bider baino gehiagotan neurtuko; 2000-5000 biztanleko herrietan lau bider baino gehiagotan ez; 5000tik gorakoetan bost bider baino gehiagotan ez).

- Neurtzaileekin hitz egiten dutenei ez zaie neurtuko.

- **Dudazko kasuak ez jaso**, hau da, entzundako hizkuntza zein den ziur ez dakigunean, jaso gabe utzi.

- Hegoaldean euskaraz edo gaztelaniaz ari ez diren beste hiztun guztiak ez apuntatu. Iparraldean euskaraz eta frantsesez ari direnak soilik izango dira neurtuak. Hala eta guztiz ere, Ermua bezalako herrietan galizieraz ere entzun ohi da. Hiztunak herrikoak bertakoak izatea posible den kasu horietan kontutan hartu behar dira eta erdarazko zutabean apuntatu.

- **Inoiz ez dugu galderarik egingo, ez galdetu ezer** : ez zein adin duen, ez zein hizkuntza erabili ohi duen, ez une horretan zein hizkuntzaz ari den mintzatzeten... Ez da ezer galdetu behar, ez baikara inkesta bat egiten ari ; gurea neurketa denez, entzundakoa jaso behar dugu.

Azken oharrak:

Euskara gutxi entzutea gogorra izan arren, **beti egia jarri**. Euskaltzaleon joera psikologikoa izaten da errealitateak adierazten duena baino euskara gehiago aditu nahi izatea. Alferrik gabiltza ordea, geure buruak engainatzen: azterketa hau **euskararen egoera ezagutzeko tresna oso garrantzitsua** da eta errealitatea egiazki nolakoa den jakitea interesatzen zaigu. Honetan, mesedez, zorrotzak izan. Taberna, denda eta bestelako leku itxien barnealdeetan neurtzerik ez dagoen arren, **haien sarrera-irteeretan bai**. Hori oso kontutan hartzekoa izan daiteke euria eginez gero batez ere. Bukatzeko, esan, garrantzitsua dela neurketa egun zehatzak noiz izango diren ez iragartzea, bestela gerta daiteke euskaldunek euskara ohizkoa baino gehiago erabiltzea, eta normala den egoeraz bestelako datuak jasotzea.